

LANGILERIAREN BATEZBESTEKOAREN KALKULUA ERRESERBA KUOTA BETETZEAREN INGURUAN

Langileriaren batezbestekoa lortzeko erreferentzia aldia aurreko urteko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 artekoa kontuan hartuko da; batezbestekoa honako prozedura jarraituz lortzen da:

1. Finkoak diren langileen kasuan eta urte batetik goragoko aldi baterako kontratua daukaten langileen kasuan, nahiz eta azken hauek zenbaketa momentuan zerbitzuak jadanik ez presta, kalkulua egingo da honakoa kontuan harturik:

Langile finkoen eta urte batetik goragoko aldi baterako kontratua daukaten langileen kopurua kontatuko da hilez-hil (nahiz eta lan egin ez duten egunak egon); pertsona bakoitza bat bezala zenbatuko da, kontratatuta egon den hil (edo egun) bakoitzean; lortutako guztira zati 12 egingo da. (Edo bestela egun naturalak kontatuko dira eta azkenik lortutako guztira zati 365 egingo da). Emaitza, "A" atalean ipiniko da.

2. Urtebete arteko aldi baterako kontratua daukaten langileen kasuan, mota horretako langileen kopurua B1 laukian adieraziko da eta B laukian batuko dira aurreko urteko urtarrilaren 1 eta abenduaren 31 bitartean horiek lan egindako egun-kopuruak, asteko atsedenaldira, jaiegunak eta oporraldiak barne, eta emaitza zati 200 egingo da (dezimalak atera ezkerre, gorantz biribilduta lortzen den zenbaki osoa hartzen da). Zatiketa honen emaitzak urtebete arteko aldi baterako kontratua daukaten langileen benetazko kopurua gainditzen bada, batezbestekoan B1 batuko da. Osterantzean, batezbestekoan, B batuko da.
3. Zenbaketa modu berdinean burutzen da 1 eta 2 ataletan, bai kontratuak lanaldi osokoak izan, bai lanaldi partzialekoak izan.

A.

B. _____ egunak / 200 =

(Eragiketa honen emaitzan dezimalak atera ezkerre, gorantz biribilduta lortzen den zenbaki osoa hartu beharko da. Adibidez: 30,35 ateratzen bada, 31ra biribiltzen da)

BATEZBESTEKOA: A + (B edo B1) = _____ + _____ =

%2aren aplikazioak, desgaitasunen bat duten langileen aldeko erreserba-kuota, enpresako langileriaren BATEZBESTEKOARI, zehazten du enpresak kontratatuta eduki behar dituen desgaitasunen bat duten pertsonen kopurua, bere legezko betebeharra betetzeko.

Gerta liteke enpresak ez betetzea, guztiz edo partzialki, kontratazio betebeharrarekin, 364/2005 Errege Dekretuko 1. artikuluan ezarritako arazoiengatik. Kasu hauetan, enpresak egin beharko du eskaera desgaitasunen bat duten langileentzat erreserba-kuota ez betetzeagatik salbuespen-adierazpena jasotzeko eta ordeko neurriak hartzeko. Salbuespen-eskaera hori gauzatu beharko da hautazko neurrien zineztoko aplikazioaren aurretik.